



Beasaingo Udala

**BEASAINGO UDALAREN ETA GARABIDE KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA
DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO**

Beasainen, 2022ko abenduaren 27an.

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NA zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, GARABIDE KULTUR ELKARTEA, G20890315 IFK zenbakiduna eta egoitza Aretxabaletan duena, Larrin plaza 1 zenbakian, egintza honetan Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribak ordezkaturik, adinez nagusia dena 16222346D NA zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Aretxabaletako Larrin kaleko 1 zenbakian duena .

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- I) 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak zuzenki emateko aukera.
- II) Garabide Kultur Elkartearen 2013/06/20ko estatutuetako 2. Artikuluan jasota dagoen bezala elkartearen helburuak honakoak dira:
 - a. Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzaz bideratzea, euskara eta euskal kulturaren esperientzien trukean oinarrituta.



Beasaingo Udala

- b. Aurreko puntuan aipatutako norabidean, munduko hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatueto eragileekin lankidetzako proiektuak garatzea. Lankidetzako proiektu hauek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor desberdinetan gauzatuko dira: hezkuntza esperientzietan, motibazio-sustapenean, kurikulumaren garapenean, hedabide esperientzietan eta , oro har, hizkuntzaren korpusaren eta estatusaren garabide edesberdinetan.
- c. Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatueto lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.
- d. Nortasunak eta hizkuntzak nortasunaren ezaugarri nagusi moduan, garapenean duen garrantziaz eta eraginaz ohartarazi eta sentsibilizatu lankidetzako arloko agente desberdinak.

- III) GARABIDE KULTUR ELKARTEAK garatzen dituen jarduerak eta dirulaguntza honen xede direnak Beasaingo Udalen dirulaguntzak emateko eskumen alorren barne daude, garapenerako lankidetzaren bidez hizkuntza gutxituak biziberritzeko elkarlanerako xedea baitu eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera:

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak ondorengo artikuluaetan xedatutakoa:

- 7. Artikulua. Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.
- 17.1.26) artikulua. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea.
- 17.1.37) artikulua. Garapenerako lankidetzako alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Beasaingo Udaleko 2022rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; eta 2020-2022 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Ebazpen bidez onartu zena, Gizarte lankidetzako eta garapenerako laguntza helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, dirulaguntza hau 1. Ildoaren 1.5. jarduketan barne hartuta.

- IV) 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- V) Beasaingo Udaleko 2022rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da GARABIDE KULTUR ELKARTEAREN alde,



Beasaingo Udala

hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeetako eragileekin elkarlana sendotzeko helburuarekin.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da GARABIDE KULTUR ELKARTEAri 42.000,00 euroko dirulaguntza nominatiboa ematea jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

1. Guaranja, Autonomia Indigenaren ardatz.

2022rako asmoa da Charaguako hizkuntza planaren diseinua sustengatuko duen udal legerako urratsak ematen hasia:

- Biziberritze-prozesuaren abiaraztean parte hartuko duten aktibista kulturaleri zuzendutako formazioa (nukleo eragilea eratu eta trinkotzera ere bideratua) burutzea.
- Egoeraren oinarritzko dokumentua lantzea: abiatzeko testuinguruaren deskripzio bateratu eta adostua jasotzeaz gain, eragile-mapa eta Charagua-lyambaeko ezaugarri soziopolitiko nagusiak bilduko dituen.
- Hizkuntza planaren zirriborroa lantzea. Bertan jasoko dira eragile sozialen ekarpena iradokizunak eta egoera soziolinguistikoaren azterketan identifikatutako premiei aurre egiteko plangintzak.
- Charagua-lyambaeko Hizkuntza Planaren sozializazioa eta aurkezpena, bai agintaritzaren organoetan bai jendartearen.
- Planaren inplementazioan ardurak izango dituzten eragileentzako formazioa prestatzea. Aukeren artean Charaguako autoritateak Euskal Herrira ekartzea, gure biziberritze-dinamikak bertatik bertara ikustera, dago.



Beasaingo Udala

2. SEI plana: Egitasmo linguistiko-identitarioa

TOSEPAN mugimendu kooperatiban SEI egitasmoa (egitasmo Sozioekonomiko-identitarioa) dute indarrean 2020 urtetik. SEI egitasmoaren atzetik aspandituk lanean aridiren eta jarduera mota ezberdinak dituzten 3 entitate daude: Garabide, LANKI (HUEZI-MU) eta MUNDUKIDE. Uste dugu elkarlan honek etorkizun oparoa izan dezakeela.

TOSEPANek eragina duen lurraldean bi komunitate bizi dira: nawat-ak eta tutunaku-ak. Topesaren egoitza nagusia eta kooptiba gehienak nawat lurraldean daude eta, hori dela eta, orain arte nawat hizkuntzaren aldeko dinamika bultzatu da. 2022rako helburua nonakoa da: nawat h hizkuntza eta identitatea bultzatzen jarraitzeaz batera, tutunatu hizkuntza eta identitatea bultzatzea. Eta, horretarako, Beasaingo Udalaren babes jaso duen HIBIL ikastaroan parte hartu duen Miriam Hernandezek (tutunakua bera) zeregin garrantzitsua izango du zeregin horretan.

Garabidek aurkeztutako proposamenean jasota daude TOSEPANeko ordezkariekin batera zehaztutako lan programa eta aurrekontua.

3. Formazio hibridoa hizkuntza eragileentzako

Garabidek formaziorako eskaera zuzena jaso du quechuen eskutik 2022 honetarako. Hizkuntza biziberritzen dabilzan eragileak formatu nahi dituzte eta on-line eta presentzial modalitateak uztartuko dituen formazioa proiektua dute buruan, 2022ko udazkenean gauzatuko dena.

Besaingo Udalak 2021ean babestutako HIBIL formazio hibridoaren ildotik, formula bikoitz hori jarraituko du proposamen honek ere: lehendabizi eduki teoriak on-line landuz eta, ondoren, tokian-tokian Garabideren aholkularitza jasoz.

4. Tamaziga saretzen: kultura amaziga indarberritzeko egitasmoak uztartzen.

Honako lau lan ildo hauek markatu dira 2022rako:

1. Martxoan Euskal Herrian atal presentziala garatzen ari den HIBIL01 ikastaroko 3 partaide amazigek diseinatutako proiektuen jarraipena, zaintza eta sustapen saretua egin. Adineko emakume riftarren testigantza bidez ondare kulturala jaso eta sarean zabaldu. Kabiliera ikasteko metodoa eskaintzea internet bidez. Melillan tarifita erabiltzeko gune estrategikoak identifikatu eta horietan erabilera areagotzeko plana egin.



Beasaingo Udala

2. Biziberritze kongresua antolatu, hizkuntza aktibisten eta eragile kulturalen topaketa gisa.
 3. Garabideren datu-baseko material didaktikoaren difusio eta erabilera auketak esploratzea.
 4. Hizkuntza amazigen biziberritzea hauspotzeko, sarean hedatzeko dibulgaziorako materiala sortu.
- 5. Cauca. Nasa Yuwe Hizkuntza Biziberritzeko Hizkuntza planaren gestio eta garapenean formazio eta aholkularitza.**

2022an lantalde espezializatu bakoitzak batzarrak egin ditu, Hizkuntza planaren arabera hurrengo urteetarako helburuak eta ekintzak zehazteko. Lantalde guztiek eskatu dute orain arteko formazio eta aholkularitzarekin jarraitzea, metodologiak eta materialak sortzen eta inplementatzen jarraitu ahal izateko.

Nasa Yuwe Hizkuntza Biziberritzeko Hizkuntza Planaren helburu estrategikoak eta lantalde espezializatuen urteko ekintza planak kontuan hartuta, talde motorrak bost urterako lanen aurreikuspena osatu du hezkuntza erautuko esparrurako eta gainerako arloetan antzeko plangintza zehazteko lanean dabil.

Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoa hitzarmen honen xede den dirulaguntzaren zenbateko osoa adinakoa da, idatzi honen eranskin modura atxikitzen den aurrekontuan ikus daitekeen bezalaxe.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharra da adostutako zenbatekoa duen dirulaguntzaren ordainketa burutzea GARABIDE KULTUR ELKARTEaren alde, hitzarmena sinatu ondoren, hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.

GARABIDE KULTUR ELKARTEaren betebeharrak dira:

- 1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- 2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- 3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta



Beasaingo Udala

kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.

6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

8) Dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

10) Jarduera guztietan Legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartzea, erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna babestuta.

11) Elkarateak euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

12) Elkarateak kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aurrekoa aldatzen duena) bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, GARABIDE KULTUR ELKARTEAren aldeko diru laguntza nominatibo gisa, 42.000,00 euro ordainduko ditu.



Beasaingo Udala

42.000,00 euroko zenbatekoa hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da, ordainketa aurreratu gisa, betiere onuradunak egiaztatu badu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.

- Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

☐

- Onuradunak uko egiten dio aipatutako egiaztapen automatikoari.

Hitzarmenaren xede den dirulaguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza 2022 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0230.481.230.20.01 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekarigak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.



Beasaingo Udala

e) Errentaren gaineko zergak.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako dirulaguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratzailaren erantzukizunpean, dirulaguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztariak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2023ko martxoaren 31 baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

1.- Burututako jardueren laburpen txostena.

2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:

a) Gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta kontzeptua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena, diruzainak sinatuta.

b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko

a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak.

c) Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua arabera diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak kontratu txikirako ezarritako



Beasaingo Udala

zenbatekoak gaintzen dituen kasuetarako, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez. Hori horrela, onuradunak mota horietako gastuak izango balitu jardueraren gastuen justifikazio txostenean, gastu horiek eman aurretik hiru eskaintza eskatu dituela adierazi beharko du, beti ere, kontratatu nahi den obra, hornidura edo zerbitzua emateko beste aukerarik ez badago kontratuaren objektuaren ezaugarri bereziengatik edo merkatuan ez badago behar adina erakunde horiek egin, mailegatu edo hornitzen dituenik.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, erakundearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Likidazio ekonomikoa sinatuta.

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari banarekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

Beasaingo Udalak eta Garabide Kultur Elkartek solaskide bana izendatuko dute eguneroko jardunean elkarri jakinarazi beharrekoak jakinarazteko eta elkarrekin adostu beharrekoak adosteko. Solaskideak Beasaingo Udaleko kultura eta euskara teknikaria eta Garabide Kultur Elkartek izendatzen duen kidea izango dira.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.



Beasaingo Udala

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Dirulaguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi dirulaguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotzen den moduan .

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2022ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.



Beasaingo Udala

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta GARABIDE KULTUR ELKARTEAK 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen denetik 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da eta ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2021eko abenduaren 9ko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2020-2022 aldirakoa, 2019ko abenduaren 18ko B19/1681 Alkatetza Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Beasaingo Udaleko dirulaguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen,



Beasaingo Udala

lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

GARABIDE KULTUR ELKARTEAK hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

GARABIDE KULTUR ELKARTEAK, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAGARRENA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, diru laguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren zuritutako kopurua konprometitutako gastua baina txikiagoa balitz, dagokion diru kopurua itzultzeko eskatuko dio Udalak Garabide Kultur Elkarteari, eta kopuru horri berandutze-interesak gehituko zaizkio.

HAMABOSGARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.



Beasaingo Udala

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Leire Artola Ugalde
Alkatea
BEASAINGO UDALA

Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba
Lehendakaria
GARABIDE KULTUR ELKARTEA

**DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN AURREKONTUA
2022. URTEA**

Guaranía, Autonomia Indigenaren ardatz

Kontzeptua	Beasaingo Udala	Tokian tokiko erakundea	Guztira
Servicio de consultoria (dedicacion coordinador guarani)	4.325,00		4.325,00
Servicio de consultoria (dedicacion técnico guarani)	3.258,00		3.258,00
Dedicación técnica de Garabide	2.275,00		2.275,00
Espacio de funcionamiento, el equipo de trabajo (material de escritorio , internet...)		200,00	200,00
Vehículo para viajes internos del equipo técnico		300,00	300,00

Sei plana: Egitasmo linguistiko-identitarioa

Kontzeptua	Kopurua
Tosepaneko hizkuntza planak inplementatu	3.000,00
Tosepan barruko hizkuntza planak jartzeko formazioa	1.800,00
Tosepaneko formazioa - koordinatzaile akademikoak	2.783,00
Garabideko lan taldearen jarraipena	3.000,00
GUZTIRA	10.583,00

Formazio hibridoa hizkuntza eragileentzako

Desplazamiento delegación Garabide	1.010,00
Desplazamientos de participantes	800,00
Dietas ponentes	240,00
Coordinador Garabide	2.500,00
GUZTIRA	4.550,00

Amaziga saretzen

Kontzeptua	Beasaingo Udala	Erakunde eskatzailea	Guztira
Hegaldiak	900,00	835,27	1.735,27
Taxiak eta joan-etorriak	200,00	264,61	464,61
Egonaldiak	700,00	1.232,37	1.932,37
Otorduak parte-hartzaileentzat	712,77	800,00	1.512,77
Garabideren lan logistikoak eta koordinazioa	1.500,00	550,00	2.050,00
Koordinazioa amazigak	1.000,00	200,00	1.200,00
GUZTIRA	5.012,77	3.882,25	8.895,02



Beasaingo Udala

Cauca

Jarduera	Unitatea	Banakako kostua eurotan	Kopurua	Balioa guztira eurotan	Beasaingo udala	Erakunde Eskatzailea	Tokiko erakundea	Guztira
Trebakuntza eta formakuntza				46.080,60 €	9.420,00 €	26.860,60 €	9.800,00 €	46.080,60 €
Euskal Herriko koordinatzaile akademikoa	soldata	3.340,15€	2	6.680,30 €	1.300,00 €	5.380,30 €		6.680,30 €
Euskal Herriko koordinatzaile exekutiboa	Hilabete	3.340,15€	2	6.680,30 €	1.300,00 €	5.380,30 €		6.680,30 €
Koordinatzaile exekutibo Nasa	soldata	800,00 €	2	1.600,00 €	1.000,00 €	600,00 €		1.600,00 €
Koordinatzaile akademiko nasa	Hilabete	800,00 €	2	1.600,00 €	1.000,00 €	600,00 €		1.600,00 €
Irakasle euskaldunen aholkularitza eta formazioa	Orduko kostua	52,00 €	150	7.800,00 €	2.900,00 €	4.900,00 €		7.800,00 €
Talde espezializatuen irakasle soldata	Orduko kostua	20,00 €	450	9.000,00 €	0,00 €		9.000,00 €	9.000,00 €
Material didaktikoaren ekoizpena	Kostua orduko	20,00 €	300	6.000,00 €	0,00 €	6.000,00 €		6.000,00 €
Material didaktikoaren inprimaketa	Kostua orduko	20,00 €	100	2.000,00 €	0,00 €	2.000,00 €		2.000,00 €
Material didaktikoaren inprimaketa	Kostua orduko	20,00 €	100	2.000,00 €	0,00 €	2.000,00 €		2.000,00 €
Material didaktikoaren inprimaketa	Kostua orduko	24,00 €	80	1.920,00 €	1.920,00 €			1.920,00 €
Programa mugieretako koordinatzailea	Hilabete	800,00 €	1	800,00 €	0,00 €		800,00 €	800,00 €
Formazioa				18.220,00 €	2.600,00 €	13.500,00 €	2.120,00 €	18.220,00 €
Formazioa irakasleentzako materiala	Saiokostua	60,00 €	7	420,00 €	0,00 €		420,00 €	420,00 €
On line aholkularitza plataformak	Hilabete	800,00 €	1	800,00 €			800,00 €	800,00 €
CECIDIC web gunea	kostua	450,00 €	1	450,00 €	0,00 €		450,00 €	450,00 €
Formazio saioetako logistika baliabideak	Orduko	50,00 €	15	750,00 €	0,00 €	750,00 €		750,00 €
Euskal Herriko irakasleen hegaldia	Kostua	1.375,00 €	6	8.250,00 €	1.500,00 €	6.750,00 €		8.250,00 €
Euskal Herriko irakasleen aseguruak	Orduko	100,00 €	6	600,00 €	100,00 €	500,00 €		600,00 €
Euskal Herriko irakasleen egonaldiak	Orduko	10,00 €	60	600,00 €	0,00 €	600,00 €		600,00 €
Gelen alokairua formazio saioetarako	Orduko	15,00 €	30	450,00 €	0,00 €		450,00 €	450,00 €
Parte hartzaileen egonaldiak	Orduko	10,00 €	240	2.400,00 €	0,00 €	2.400,00 €		2.400,00 €
Jardunaldietako otorduak (25 pertsona, 8 egun)	Orduko	10,00 €	200	2.000,00 €	1.000,00 €	1.000,00 €		2.000,00 €
Irakasleentzako bidaiak autobusean	Orduko	1.500,00 €	1	1.500,00 €	0,00 €	1.500,00 €		1.500,00 €
Erakundearen gastuak guztira					17.720,00 €	11.120,00 €	11.120,00 €	17.720,00 €
Administrazio gastuak								
GUZTIRA						11.120,00 €	11.120,00 €	64.300,60 €

ESKU8101021b-da5e-46b3-8384-da52-8b733b0

Erantzukizunpeko aitortpena

Izen-deituraK	Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba		
Nortasun agiriaren zenbakia	16222346D		
Helbidea	Larrin plaza, 1		
Posta kodea	20550	Herria	Aretxabaleta

Elkartearen izena	Garabide Kultur Elkartea		
IFZ	G20890315		
Helbidea	Larrin plaza, 1		
Posta kodea	20550	Herria	Aretxabaleta

Dokumentu honen sinatzaileak aitortzen du:

- Berak ordezkatzeko duen elkarteak ez dagoela sartuta onuradun izateko 2017ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. Artikuluan adierazitako inolako debekutan.
- Berak ordezkatzeko duen erakundea ez dagoela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa 12. Artikulua-; 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru araua, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.

